



GEU GASTEIZ EUSKALDUNA ELKARTEA

2016 PLANGINTZA

Gasteizen, 2016ko apirilean

AURKIBIDEA

Sarrera	3
Elkartea	4
-Administrazio orokorra	
-Barne funtzionamendua	
-Komunikazioa	
Egitasmoak eta zerbitzuak	5
-Hedabideak	
-Erabilera	
-Kultura	
-Aisialdia	
-Sentsibilizazioa	
-Bestelakoak	
Harremanak eta ordezkaritza	6
Arlo ekonomikoa	8

SARRERA

GEU Gasteiz Euskalduna elkarteak 2016 urterako proposatzen duen plangintza aurkezten da txosten honetan. Neurri handi batean azken urteetan jorratutako bidetik jarraituko du lanean elkarteak. Nahiz eta, azken urteetan pisu nabarmena izan duen hedabideen arloa ALEAren bitartez lantzeak aukera ematen du indarrak eta baliabideak bestelako lan ildo eta egitasmoetara bideratzeko.

Horrela, aisialdiak eta horrekin loturiko egitasmo eta zerbitzuek garrantzi berezia izango dute; Igandeak Jai edo Familia irteerez gain, guraso elkarteekin, begirale eta hezitzaileekin ere lanean arituko baigara.

Era berean, elkartearen funtzionamendua hobetzen saiatzen ari gara azken urteetan, kontularitza, lan taldea eta komunikazioari dagokionez batez. Eta bide horretan ere aurrera egingo dugu; elkartearen webgune berria, Euskalit kudeaketa aurreratuaren eredia eta beste hainbat izango dira erronkak.

Hausnarketarako tarteak ere zabalduko dugu udazkenean; gogoeta eta parte hartze prozesu baten bidez, Gasteizen euskararen egoeraz, egindakoaz eta aurrera begirakoaz modu zabal eta eraikitzailean jardun nahi dugu eta horretarako ahalik eta pertsona gehienek ekarpenak jasotzen saiatuko gara, saio dinamiko batzuen bidez.

Hala ere, ezin ahaztu orain arte landutakoak bere horretan mantenduko direla, Mintzalaguna, Igandeak Jai, Euskararen Agenda edo txosna adibidez. Eta beti harreman sareetan sakontzen Gasteizko euskaldunon komunitatea trinkotzeko helburuarekin.

ELKARTEA

Elkartearen barne mailako funtzionamenduari dagokionez, 2015 urtean irekitako bidetik jarraitzea da asmoa. Hau da, kudeaketan aurrerapausuak ematea; arlo ekonomikoan edo lantaldeari dagokionez eta era berean Euskalit-en kudeaketa aurreratuaren eredian sakontzea eta elkartean inplantatzen hastea.

Horrekin batera, 2015ean zehaztu zen elkartearen komunikazio plana martxan jartzea da beste lan ildo garrantzitsu bat; webgune berria, komunikaziorako protokoloak, etab. Honek, kanpora begira elkartearen komunikazioa hobetu eta elkartearen irudia indartzea izango du helburu eta aldi berean, bazkideekin harreman estuago bat ahalbidetzea nahiko genuke.

Bazkideekin eta batzorde ezberdinen bidez parte hartzea sustatzea izango litzateke beste helburu bat; elkartearen ekintza puntualetaz haratago, egunerokotasunean bazkideen ekarpenak txertatu ahal izateko.

ARLOA	LANA	HELBURUA	EPEAK	ARDURA	LAN TALDEA
Administrazio Orokorra					
Kontabilitatea	Elkartearen kontabilitatea, aurrekontuak prestatzea, aholkularitzarekin harremana, etab.	Kontabilitatea formal eta fidelago bat lantzen aurrerapausuak ematea	Urtekoa	Eñaut	
Diru laguntzak	Diru laguntzen tramitazioa eta jarraipena	Diru laguntzen eskaera egokia egitea eta diru laguntza berriak aztertzea	Urtekoa	Eñaut	
Bazkideen alta eta bajak, kuotak	Bazkideen gora beheren kudeaketa, kuotak kobratzea, etab.	Bazkideen kudeaketa egokia egitea	Urtekoa	Eñaut	
Lan taldearen kudeaketa	Kontratazioak, bajak, lan baldintzen jarraipena, hitzarmena, etab.	Lan taldearen kudeaketa egokia egitea, astero bilerak egitea eta langileen asebetetzea neurtzea	Urtekoa	Eñaut	
Hornitzaileak	Hornitzaileekin harremanak, eskaerak, ordainketak, etab.	Hornitzaileen kudeaketa egokia egitea	Urtekoa	Eñaut	
Elkartearen barne funtzionamendua					
Bazkideak	Bazkideen ekarpenak jaso, batzarretara deitu, etab.	Bazkideen parte hartze eta inplikazioa areagotzea	Urtekoa	Eñaut	
Batzordeak					
Kultura	Kultura egitasmoak zehaztea, antolakuntzan laguntzea eta jarraipena egitea	Batzordea biziberritu, jende berria erakarri eta urte osoko programazio bat lantzea	Urtekoa	Azaitz	Narrea
ALEA FM	ALEA FM irratsaioaren jarraipena	Irratsaioa egitea eta hobekuntzak proposatzea	Urtekoa	Narrea	Saioa
Aisialdia	Gasteizko aisialdiaren diagnosia, eragileen elkar ezagutza, saretzea eta garatu daitezkeen egitasmo posibleak zehaztea	Batzordearen osaketa eta lan dinamika definitu eta jarraipena ematea	Urtekoa	Zuriñe	Narrea
Zuzendaritza Batzordea	Elkartearen norabidea definitzea eta erabaki estrategikoak hartzea	ZB berritzea eta elkartearen kudeaketa egokia izan dadin, egiteko eta helburuak zehaztuz erabaki egokiak hartzea	Urtekoa	Eñaut	
Komunikazioa					
Barne komunikazioa	Bazkideekiko komunikazioa, egitasmo ezberdinen berri eman, etab.	Bazkideekin bi norantzako komunikazio egokia izatea	Urtekoa	Narrea	Eñaut
Kanpo komunikazioa	Elkarteak garatzen dituen proiektu eta egitasmoen berri eman, hedabideei, webgunea, sare sozialen bidez, etab.	Elkartearen webgune berria martxan jartzea. Hedabide, eragile eta gizarteari orokorrean elkartearen berri modu egokian ematea	Urtekoa	Narrea	Eñaut
Komunikazio plana	2015ean zehaztutako komunikazio plana martxan jartzea	Komunikazio planean agertzen direnak martxan jarri eta jarraikotasuna ematea	Urtekoa	Narrea	Eñaut

EGITASMOAK

Hasieran aipatu bezala egitasmoen atalean aisialdiak eta horrekin lotura duten egitasmoek garrantzia berezia izango dute 2016 urtean; Igandeak Jai, Familia irteerak, guraso elkarteak, hezitzaileak, etab. Gainerako arloetan ez da berrikuntza nabarmenik aurreikusten, bere horretan jarraituko du azken urtean garatutakoak.

Gogoeta eta parte hartze prozesu bat da azpimarratu daitekeen beste berrikuntza bat. Gasteizen euskarak azken urteetan izan duen bilakaera, etorkizunerako erronkak, eragileen papera, etab. aztertuko dira bertan norbanakoek parte hartzeko egingo diren saio ezberdinetan. Dinamika horretatik etorkizunera begirako hainbat lan ildo eta erronka berri ager daitezke.

ARLOA	LANA	HELBURUA	EPEAK	ARDURA	LAN TALDEA
Egitasmoak					
Hedabideak					
ALEA	ALEAren elkarlanean aritzea beharrezkoak diren gaietan	Elkarlan egokia mantentzea eta bien beharrianak betetzea	Urtekoa	Saioa	Naroa eta Eñaut
ALEA FM	Irratsaioa garatu, edukia sortu eta kolaboratzaile sarea kudeatu	Irratsaioaren kalitatea eta funtzionamendu egokia mantentzea. Kolaboratzaile berriak lortzea.	Urtekoa	Naroa	Saioa
Euskararen Agenda	Euskararen agenda edukiz osatu eta zabalpena egitea. ALEAren koordinatu.	Gorako joera mantentzea eta erreferente izatea hartzaile eta programatzaileentzat.	Urtekoa	Naroa	Saioa
Erabilera					
Mintzalaguna	Mintzalagunak eta taldeak kudeatzea, ekintzak osagarriak antolatzea, komunikazio kanpainak, etab.	Funtzionamendu egokia bermatzea	Urtekoa	Naroa, Zuriñe eta Azaitz	
Kultura					
Parral emanaldiak	Hileroko emanaldia antolatu eta zabaltea	Funtzionamendu egokia bermatzea, zabalpen egokia egin eta kalitatezko eskaintzarekin jendea erakartzea	Urtekoa	Azaitz	Naroa
Ikus-entzunezkoak	Gutxienez bi hilean behin emanaldia antolatu eta zabaltea	Funtzionamendu egokia bermatzea, zabalpen egokia egin eta kalitatezko eskaintzarekin jendea erakartzea	Urtekoa	Azaitz	Naroa
Irakurle Kluba	Iban Zalduarekin koordinatuz Irakurle Klubeko saioen komunikazioa egitea	Komunikazio egokia batekin eta kalitatezko saioekin jendea erakartzea	Urtekoa	Iban Zaldua	Naroa eta Eñaut
Aisialdia					
Igandeak Jai	Hileroko emanaldia antolatu eta zabaltea, eragileekin koordinazioa, asteburuko irteera antolatzea, etab.	Saioetan jendearen parte hartzea bultzatu eta familien arteko sarea osatzen joatea, eragileen inplikazioa lortzea	Urtekoa	Zuriñe	Naroa eta Eñaut
Familia irteerak	Hilabetearen behin familia irteera bat antolatzea	Egitasmo berri hau ezagutzera eman, parte hartzea bultzatu eta familien inplikazioa sustatzea	Urtekoa	Zuriñe	Naroa eta Eñaut
Guraso Elkarteak	Guraso elkarten barne aktibazioa bultzatzea, lantegi eta hitzaldiak ematea	Gutxienez bi guraso elkarterekin barne aktibazioa lantzea eta 10 lantegi edo hitzaldi ematea	Urtekoa	Zuriñe	Eñaut
Ikasleen euskara batzordeak	Ikasleen euskara batzordeetako barne aktibazioa bultzatzea	Gutxienez bi euskara batzorderen aktibazioa lantzea	Urtekoa	Zuriñe	Eñaut
Begiraleen formazioa	Begirale, hezitzaile, entrenatzaile, etab.-ei formazioa eskaintzea	Urtean 30 saio ematea	Urtekoa	Zuriñe	Eñaut
GEUren mendira	GEUren mendira taldekoekin koordinatuz egitasmoaren komunikazioa egitea	Komunikazio eta funtzionamendu egokia bermatuz irteeretan jendea erakartzea	Urtekoa	Bego Ariznabarreta	Naroa
Sentsibilizazioa					
Zergatik ez?	Saioak antolatu eta ematea	Urtean 15 saio ematea hartzaile talde ezberdinei eta posible baldin bada saio batzuk saltzea	Urtekoa	Azaitz	Naroa
Bestelakoak					
Gogoeta eta parte hartze prozesua	Gasteizen euskara eta euskalgintzaren bilakaeraz eta egoeraz aitzeko gogoeta prozesu parte hartzaile bat jorratzea	GEU elkarteak eta orokorrean gasteizko euskalgintzak aurrera begirako norabidea zehaztea, GEU elkartera jendea hurbiltzea eta egitasmo, batzorde eta dinamika ezberdinetan parte hartzea gonbidatzea	Urtekoa	Eñaut	
Gasteizko Jaiak	Gasteizko jaietan txosna antolatu, txandak, hornitzaileak, etab.	Etekin ekonomikoak, bazkide eta inguruko inplikazioa eta jaietan euskararen presentzia areagotzea	Maiatza - Iraila	Eñaut	Naroa, Saioa, Zuriñe eta Azaitz
Ibilbide gidatuak	Ibilbide gidatuak antolatu eta egitea, hartzaileak definitu, etab.	Urtean gutxienez 10 ibilbide gidatu egitea eta horietako batzuk ikastetxeekin lotzea	Urtekoa	Azaitz	
Euskaralagunak	Euskaralagunak egitasmoaren funtzionamendu egokia bermatzea, jarraipena eta zabalpena egitea	Proiektuaren funtzionamendua definitzea, gizaritari aurkeztea eta erabiltzaile poltsa bat bermatzea	Urtekoa	Azaitz	

HARREMANAK ETA ORDEZKARITZA

GEU elkartearen harreman sarea gero eta zabalagoa da; Gasteizko eragile ezberdinetatik hasita, euskaltegiak, elkarteak, ikastetxeak, etab. Erakundeekin jarraituz, Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza eta Euskal Herri mailako eragileekin harremana izateaz gain ordezkariak ere badu, Topaguneko zuzendaritza batzordean, aipatu behar da, 2016 urte honetan dagoeneko GEU ez dela Tokikom-ko bazkide izango, bere lekua ALEAk hartu baitu.

Atal honetan, 2016an helburuetako bat auzoetako euskara elkarteekin harremanak sakondu eta elkarlana bultzatzea izango da. Aurreko urteetan garatzen hasitako bide horretatik elkarren artean garatu daitezkenak martxan jartzea izango da erronka.

ARLOA	LANA	HELBURUA	EPEAK	ARDURA	LAN TALDEA
Harremanak eta ordezkariak					
Topagunea	Zuzendaritza Batzordean parte hartzea.	Topagunean eragitea, harreman sarea sendotzea, Euskal Herri mailako ezagupena izatea, etab.	Urtekoa	Eñaut	
ALEA	Administrazio Kontseiluan parte hartzea, elkarlana sustatu eta jarraipena egitea	ALEAren nondik norakoak bideratzea	Urtekoa	Eñaut	Saioa
AFA	Euskara Zerbitzurekin harreman jarraia mantentzea, foro ezberdinetan parte hartzea, etab.	Aldundian ahal den neurrian eragitea, egiten dugunaren berri ematea, etab.	Urtekoa	Eñaut	
Gasteizko Udala	Euskara Zerbitzurekin harreman jarraia mantentzea, foro ezberdinetan parte hartzea, etab.	Udalan ahal den neurrian eragitea, egiten dugunaren berri ematea, etab.	Urtekoa	Eñaut	
Eusko Jaurlaritza	Beharrezko ikusten denean bilera puntualak eskatzea	Egiten dugunaren berri lehen eskutik ematea	Urtekoa	Eñaut	
Euskalgintzako eragileak	Gasteizko euskalgintzako eragileekin aldizkako bilerak egitea eta elkarlana sustatzea	Gasteizko udalarekin urte osoko lan mahai bat eratzea eta dinamika jarraia bermatzea	Urtekoa	Eñaut	
Mintzapraktika Batzordea	Mintzapraktika egitasmoaren jarraipena egitea	Mintzapraktika egitasmoak hobetzeko ekarpenak egin eta jasotzea, Euskal Herri mailako ezagupena izatea	Urtekoa	Zuriñe	Azaitz eta Naroa
Zergatik ez? Batzordea	Zergatik ez? Tailerren jarraipena egitea	Zergatik ez? Tailerrak hobetzeko ekarpenak egin eta jasotzea	Urtekoa	Azaitz	

ARLO EKONOMIKOA

Jarraian aurkezten da 2016 urterako aurrekontua. 2015 urtearekin alderatuz aldaketa nabarmenak daude, horietako batzuk kudeaketan egon diren aldaketa eta hobekuntzekin lotuta. Modu honetan, aurrekontu altuagoa aurkezten da aurreko urteetan baino, izan ere, gastu eta sarrera guztiak aurkezten dira; adibidez gasteizko jaiei dagokionean eta ez aurreko urteetan bezala soilik irabazi garbiak islatuz.

Beti bezala, langileen gastuak du pisurik handiena aurrekontuan baina badira partida berri batzuk, adibidez komunikazio plana garatzeko bideraturikoa edo bestelako egitasmoetan adibidez, gogoeta eta parte hartze prozesuak izango duena.

Sarrerei dagokionez, bazkideen kuota 5 €tan igotzea proposatzen da, 25 €tik 30 €ra hain zuzen ere. Azken igoera 2012 urtean eman zen eta ordutik elkartearen egoera aldatu eta egitasmoen bolumena eta garrantziak izan duen hazkundera ikusita proposatzen da igoera hau.

Azpimarratzekoa da, aurkezten den aurrekontu honetan baliabide propioek %56 suposatzen dutela.

2016 AURREKONTUA				
GASTUAK			SARRERAK	
LANGILE GASTUAK		145.000,00€	BALIABIDE PROPIOAK	126.750,00€
FUNTZIONAMENDU GASTUAK		9.100,00€		
	Telefonoak eta internet	1.300,00€		Bazkide kuotak 24.000,00€
	Aholkularitza	1.700,00€		Gasteizko Jaiak 56.000,00€
	Bankuko gastuak	300,00€		Mintzalaguna 16.500,00€
	Bulego materiala	1.800,00€		Babesgotza 4.250,00€
	Bestelako gastuak	4.000,00€		Zerbitzuak 26.000,00€
PRODUKZIO GASTUAK		69.350,00€	DIRU LAGUNTZAK	96.000,00€
	Kultura	2.000,00€		Gasteizko Udala 75.000,00€
	Alea	850,00€		Arabako Foru Aldundia 7.000,00€
	Irakurle Kluba	1.000,00€		Eusko Jaurilaritza 14.000,00€
	Mintzalaguna	5.000,00€	BESTELAKOAK	700,00€
	Gasteizko Jaiak	40.000,00€	GUZTIRA	223.450,00€
	Aisialdia	12.000,00€		
	Komunikazioa	3.500,00€		
	Bestelako egitasmoak	5.000,00€		
GUZTIRA		223.450,00€		